

Funtsezko baliabideak

Gure jarduera egin ahal izateko, ondorengo baliabideak behar ditugu:

- **BALIABIDE FISIKOAK:** Lokal bat alokatu behar dugu, gure enpresaren sede zentrala hor jartzeko. Lokalean 5 mahai egongo dira, 4 mahai 4 pertsonen bulegorentzako eta mahai bat enpresa bilerak egiteko. Lokala 93m karratukoa da eta hilabetean 700€ ordainduko dugu. Gure aplikazioa aurrera emateko erabiliko ditugun tresneriak ordenagiluak izango dira.



- **BALIABIDE INTELEKTUALAK:** Web orri bat dugu gure enpresaz informazioa eskuratzeko eta Play Store eta App Store-tik gure aplikazioa jaisteko. Hortik, gure aplikazioak eskaintzen duena lortu dezakezu. Aplikazioan bertan ere jakin nahi duzun informazioa eskuratu dezakezu. Gure app-a oso erabilgarria da pertsona guztientzako, aukera ematen dizulako zure etxetik arropa nola geratzen zaizun ikustea. Ropapp produktu berri bat denez merkaturatzeko patenteak egin behar dira, produktua erregistratzeko.
- **GIZA BALIABIDEAK:** Enpresa informatikari bat kontratatuko dugu gure aplikazioa sortzeko eta mantenimenduz arduratzeko. Gu 4 gara eta bakoitzak sektore batetza arduratuko da: bat sare sozialak kontrolatuko ditu, beste bat jende famatuen kontratazioaz arduratuko da. Hirugarrena enpresaren administrazioaz arduratuko da eta azkena bezeroen arretaz arduratuko da. Sare sozialak eta famatuen kontratazioak arduratzen direnak arduratuko dira marketinaz publizitatearen bidez.
- **FINANTZA BALIABIDEAK:** Dirua guk jarriko dugu. 4 pertsona garenez bakoitzak 750€ jarriko du. Sozietate anonimo bat egingo dugunez ekarpen minimoa 3000€-koa izan behar delako. Gero, 20000€-ko mailegu bat eskatuko diogu bankuari. Hasierako kapitala lokalaren lehenengo bi kuotak ordaintzeko eta informatikari enpresari ordaintzeko erabiliko dugu.